

# Errenteriako euzkotarren anaitasuna

## Duela ehun urte jaio zen

Mikel Ugalde

**E**hun urte dira Euzkotarren Anaitasuna elkarte Errenterian sortu zela. Gaixaldi eta larrialdietan elkar laguntzeko sortutako elkarteak izan zen. Mikel Idiazabalek helarazi dizkigun agiriei esker, hobeto ezagutu ahal izan dugu 1936. urte arte Oarsoaldean ezinak jotako bazkideak babesten jardun izan zuen elkarteak.

Joan den mendearen hasieran sortutako elkarte bere garaian kokatze aldera, gogoan hartzekoa da euskal gizartean gertatzen ari zen aldaketa. Arrantza, nekazaritza, abeltzaintza eta artisautza giroan bizi zen herri hura eraldatuz joango da industriari esker. Ordurako trenbide komunikazioak zabalduak zeuden, lanerako lehen gaiak garraiatzeko aukerak eskura zeuden eta horren guztiaren ondorioz, industria ere zabaldu zihuan.

Hala ere, garai hartan ez zegoen gaur egun gizarte segurantzak eskaintzen duen babesik. Gaixaldiak edota larrialdiak jotakoan, gorriak ikusi beharrean izan ohi zen jornal xume baten mendean bizi ohi zen

langileak. Euzkotarren Anaitasunaren gisako elkarteek konponbide bat eman nahi izan zioten egoera horri.

### Helburuak

Barne araudia betetzen duen bazkidea babestea eta laguntzea da elkarte honen helburua. Horretarako, bi eratako bazkideak inguratu zitzaizkion: bazkide arruntak batzuek eta ongile bezala izena ematen zutenak, besteak.

Bazkide ongilea hileroko, gutxienean, pezeta bateko kuota ordaintzen zuen. Bazuen hitz egiteko eskubidea eta baita botoa ematearena ere. Gaixaldietan, ordea, ez zuen inongo laguntza eskuratzeko eskubiderik.

Bazkide arruntak, aldiz, bazuen, jakinek baldintzapean, laguntzak jasotzeko eskubidea. Horretarako, besteak beste, azken sei hilabetetako kuotak ordainduak eta eguneratuak izatea ezinbestekoa zen. Hileroko pezeta ordaintzen zuten.

Hona hemen, besteak beste, bazkide izateko bete beharreko baldintzak:

- Adinari zegokionez, 15 urtetik gora behar zuen bazkideak eta, gehienez, 40 urtekoa.
- Oarsoaldean bizitzea. Kontuan hartzekoa da Altxakoek ere bazutela sartzeko aukera.
- Lanbide baten jabe izatea.
- Gisa honetako beste inongo elkarteko kide ez izatea.
- Osasuntsu aurkitzea.

Argazkian azaltzen direnak, ezkerretik hasita: Salvador Etxebeste, Xabin Lasa, Andoni Korta, Sebastián Berra, Bittor Idiazabal, Asintxio Lasa, Jenaro Iriarte, Xabier Lizaso, Felipe Lizaso, Joxe Goñi.





Bazkide izan nahi zuenak, eskaera babestu zezakeen bi bazkideren laguntza behar zuen. Esan bezala, bi bazkideren eskutik aurkeztea lortu eta gero, eskaera egin ondoren, Batzordeak erabakitzen zuen bazkide izendatu ala ez. Onartua izanez gero, lehen bost hilabetetan kuota ordaintzen zuen eta laguntzak seigarren hilabetean, beti ere kuota ordaindu eta gero, jasotzen zituen.

Bazkideren bat botatzeko aukerak ere, barne araudian era zehatzean jasoak zeuden. Baja emateko aski zen, esaterako:

- Hiru hilabeteko kuota ordaindu gabea izatea.
- Jasotako laguntzen inguruan gaixo itxurak edota iruzurrak egitea.
- Bazkide egiterakoan gaixotasuna aitortu ez izana.

## *Laguntzak*

Gaixoaldian, bazkideak eguneko 1,25 pezeta jasotzen zuen laguntza moduan lehen hiru hilabetetan. Hiruhilekoa pasa eta gero gaixorik jarraitzen bazuen eguneko pezeta. Hirugarren hiruhilekoan berrogeita hamar zentimo. Gerora kopurua jaso egin zuen lehen hiruhilekorako 1,75 pezetatan ipiniz.

Euzkotarren Anaitasuna elkarteko bileren aktak irakurriaz, argi ikusten da diru egoerak eta gorabeherak oso gertutik jarraitzen zituela. Hilero bildu ohi ziren. Lehendabizi, aurreko bileraren aktaren irakurtzen zen, gehientsuenetan bere horretan onartzen zelarik. Jarraian, elkartearen egoeraren berri zehatza eman ohi zion diruzainak batzordeari. Inoiz, bazkideren batek iruzur egin nahi zuela ikusita, edota barne araudiak zioenaren aurka diru laguntzak jaso nahi izanez gero, batzordeak zorrotz erantzuten zuen ezezko borobilena emanaz.

## *Bazkideak*

Arestian aipatu dugu bazkide egiteko erabili ohi zen prozedura. Zenbatekoa zen, ordea, bazkide kopurua? Zeintzuk ziren elkartean sartzen ziren bazkideak? 1927 urtean legeztatutako bazkideen zerrendan, 60 lagun ageri dira, guztiak, ezeren okerrik egin ez badugu, gizonezkoak. Izen-abizenak, helbideak eta ogibideak jasotzen dira zerrendan. Era guztietako lanbideak zituzten: gauzaina, dendariak, sakristaua, nekazariak, harakinak, kale garbitzaileak, molde egileak, argiketariak, bidezainak mekanikoak, garraiolarriak, ile-apaintzaileak, modelistak eta, gehiago zehaztu gabe, jornamean ari zirenak.

Eginiko lanarengatik esker ona erakusteko bederen, aipa dezagun 1908ko ekainaren 7an, lehen Gida Batzordea osatu zutenen zerrenda:

Lehendakaria: Gaudioso de Celaya  
Lehendakariordea: Julián de Inciarte  
Idazkaria: José M<sup>o</sup> Elustondo  
Diruzaina : Victoriano de Echeberria

Bokalak, bisita egileak:  
José de Aróstegi  
José Ramón de Basterrica  
Sebastian Gamborena

Bokalak:  
Rosario de Goñi  
Rafael de Michelena

Azken Gida Batzordeko kideak, ezagunagoak gertatuko zaizkio, agian, urtetan aurrera doan irakurleari:

Lehendakaria: Antonio Amiano  
Lehendakariordea: Carmelo Picabea  
Idazkaria: Victor Idiazabal  
Diruzaina: Bibiano Olaizola

Bokalak:  
Ignacio Olaizola  
Ester Imaz  
Javier Zuzuarregi  
Guillermo Lizaso  
Claudio Gaztelumendi

Azken akta 1936ko otsailaren 6ko bilerakoa da. Jorratutako gai gisa: Aurreko bileraren aktaren eta diruzainak azaldutako diru egoeraren onarpena planteatzen da. Hortxe amaitzen dira Euzkotarren Anaitasunari buruzko idatzizko berriak.

## *Gogoeta gisa*

Gizakiak sarritan izan du bakarka ezinezko zaizkion hainbat helburu lortzearen besterekin biltzeko joera. Osasuna eta lanaren jabe zen neurrian bizitzeko adina diru sarrera zuenak, gaixoaldietan gerta zitezkeenari begira, gisa honetako babes elkarrekin sortzeari ekin zion. Gisa honetako antolaketa askotan zer ikusi zuzena izan zuen Sabino Aranaren eskutik sortu eta ondorengo urteetan garatzen ari zen abertzaletasunak. 1911an sortu zen Euzko Langilleen Alkartasunak ere garrantzi handia emango zion langileak babesteko proiektu eta ekintzei.

Iraganari begiratu eta oraina ikusterakoan aldea nabarmena dela bistan da. Agian, izan dezakegu iraganetik zer ikusi eta ikasia. ■